

Zuhaitz Eguna
egin dute
Altzoko
eskolakoek ▶ 5



Harpidedunei banatua ▶ Larunbata ▶ 2006-03-25 ▶ IV. urtea ▶ 846. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Gazte abesbatza sortzeko ituna sinatu du Orfeoia

TOLOSA ▶ Deustuko Unibertsitateko ESME Junior enpresarekin adostu du elkarlana Tolosako Orfeoia

HELBURUA ▶ Hiru fase izango ditu lankidetzaren proiektuak; «gazteak musikara erakarri» nahi dituzte ▶ 3

TOLOSALDEA ▶

Eskualdeko kantariak bigarren kanporaketan

Gipuzkoako Kantu Txapelketan, gaur ▶ 5

Esatarien bihotzetik entzuleen bihotzera

TOLOSA ▶ Poesia errezitaldi «hunkigarria» eskaini zuten atzo Beotibarren Tolosako, Baionako eta Iruñeko hainbat ikaslek ▶ 2

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Inaxio Perurenaren marka saiakera berria

Urrezko Aizkolarien Txapelketan egingo du, gaur; Otaño eta Rekondo ariko dira bertan ▶ 7

IBARRA-VILLABONA ▶


Preso politikoen atxiloketen urtemugan, ekitaldiak

Ibarran Aramendi, Ijurko, Mindegiaga eta Aranalde omenduko dituzte; Villabonan, Salaberria ▶ 4, 6

L. GARCIA



OHARRA ▶



Ordua aldatuko da gaur gauean: 02:00etan 03:00ak izango dira

VILLABONA ▶

500 mendizaleren esperoan ▶ 4

KULTURA ▶

Bihotzetik... bihotzera

Poesia errezitaldi «hunkigarria» burutu zuten atzo, Beotibar pilotalekuan, Laskorain ikastolako, Orixe institutuko eta Hirukide ikastetxeko ikasleek



Ikuskizun bikaina eskaini zuten atzo Beotibarren poesia errezitatzen jardun zuten ikasleek. IMANOL GARCIA

OLERKIAK ▶

'BART AMESTU DUT'

Bart amestu dut / gezurrezko mundu batekin. / Gezurrezkoa behar, / pertsona guztiak / zoriontsu bizi badira. / Ametsezko leku honetan / azalaren koloreak / ez du garrantzirik: / beltz, zuri,... / ez dago drogarik, / negarrik, / ezta malkorik ere. / Maitasuna eta bakea. / Ez besterik. / Bart amestu dut / nolakoa den / gaur egungo mundua. / Maiz begiak ixten ditugu / errealitatearen mina ez nozitzeko, / eta irekitzen ditugunean, / bihotzako taupadak / azkartu egiten zaizkigu: / gerrateak, gosea, / droga, / injustizia / eta gorrotoa dira / mundu honen / ezaugarri nagusiak. / Horregatik, / nahiago dut / begiak ibi / eta noizean behin,

bart amesturiko / mundu zoriontsu horretan murgildu. / Azken batean, / ametsen mundua / gure bizitzaren parte ere bada; / ametsak eta errealitatea / txanpon baten bi aldeak / bezalakoak baitira; / bata bestea / bizitzen laguntzen digu.
Egilea. Mikel Malumbres.

'NIRE AZKEN HITZAK'

Batzuetan bakarrik nagoela iruditzen zait, / inork ez nauela konprenitzen, / inork ez nauela maitatzen, / denek nautela gorroto / inork ez duela nire alboan nahi. / Nire baitako goibeltasunaren / unerik beltzenean / senti dut bihotza, / bakarrik, preso, / amildegiaren aurrean beldurrez, / triste. / Bakardadez / hiltzeko zorian.

/ Zerura begiratzean ilargia ikusi dut / niri begira. / Biok bakarrik, ni maitasunik gabe. / Eta bera parekorik gabe. / Egun euritsuek, / eguzkirik gabeko egun hotz / eta umelek, / maitasunik gabeko hitz anker eta gordinek, / neure burua dakarkidate gogora. / Bizitza / eguneroko borroka latza da, / aurrera eginazten didana borroka, / bidean zailtasun eta oztopo / ezartzen dizkidana, / tristura ugari jasanarazten didana. / Eta egunen batean, / inolako errukirik gabe, / eskuetatik kenduko didatena. / Baina, / irrifar goxo batek ematen duen alaitasuna, / muxu txiki batek ematen duen maitasuna, / begirada sarkor batek ematen duen konfiantza, / besarkada bero batek ematen duen indarra,... / Horiek guztiak nire izan banitu, / zoriontsu nintzatekeen; / bizitza, larrosaz inguratuturiko bidexka izando zatekeen; / egiazki, ordea, arantz zitzakorrez beteriko bide estua da. / Garrasi isilez diot: / jada etsi dut, / Ez dut aurrera egiteko kemenik. / Agurtu nahi ditut larrosak, / agurtu nahi ditut mendiak, / agurtu nahi ditut itsasoak, / agurtu nahi ditut inoiz maite izandako guztiak ez bainaiz inoiz itzuliko. / Heriotza beste biderik ez ote / sufrimen honi amaiera emateko?
Egilea. Irati Sorondo.

NOELIA LATABURU

Esatariaren bihotzetik paperera; paperetik ahora; eta, ahotik, entzulearen bihotzera. Bidaia majiko hau burutu zuten atzo Laskorain ikastolako, Orixe institutuko eta Hirukide ikastetxeko ikasleek errezitatu zituzten hitzek. Baionako Bernat Etxepare Li- zeokoak eta Iruñeko Biurdana ikastetxekoek ere igo ziren oholtza gainera. Galtzaundi Euskara Taldeak III. Poesia Errezitaldia antolatu zuen, Udalaren laguntzarekin. Iaz bezalaxe, gazteak izan ziren olerkiak errezitatu zituztenak, hizki bakoitzaren egileak eta doinu guztien gidariak. Beotibar pilotalekuko harmailtan haien ikuskizuna jarraitzen ari zirenak, berriz, helduak, batik bat. «Hunkigarritzat» definitu zuten bertaratuak ikuskizuna.

Gazteek gai askotariko olerkiak eskaini zituzten atzokoan, olerkiaren munduan zeresan handia dutela erakutsiz. Barne kezkei buruzkoak; galdutako, lortutako, urrundutako maitasune buruzkoak... Guztientzako tartea izan zen; hitz gozoak beti ere. Gozotasuna areagotzeko pianoaren, flautaren, kitarraren, akordeoiaren, kitarra akustikoaren, kaxaren, saxofoiaren, biolontxelaren, biolinaren, danborraren eta zeharkako flautaren laguntza izan zuten esatariek. «Gazteek beraien sentimenduak islatzeko bidea izango da poesia», zioen Angela Alamo antolatzaileak.

Ikuskizuna taula gainean

Partaide askok hartu zuten parte ekitaldian: idazleak, esatariak, musikariak eta dantzariak. Ahalegin berezia egin zuten, gainera, pilotalekuko taula gainera igo zirenetako bakoitzak. Aurkezleak ere ez ziren falta eta ikastetxe bakoitzak izan zuten bere gidaria. Hirukideren aldetik, Amaia Jaurregik eta Ander Malbadik jardun zuten; Laskorain ikastolakoentzat, berriz, Astrid Pastor et Irati Carrera hautatu zituzten, eta Elixabete Jauregik ere aurkezle lana burutu zuen Orixeoak aurkezteko.

Denbora luzez prestatu dute gazteek emanaldia eta burutu ere ederki burutu zuten haien errezitaldia, hitzen bidez, euskarazko artea ere posible dela agerian utziz.

POLITIKA ▶

Pello Odriozola euskal preso politikoa lekuz aldatu dute

Ourenseko espetxetik, 665 kilometrotara dagoen Bonxera eraman dute, Lugon

ERREDAKZIOA

Pello Odriozola Tolosako euskal preso politikoa Ourenseko espetxetik (680 km.) Lugon dagoen Bonxeko espetxera (665 km.) eraman dute. Tolosarrekin batera, azken hilabeteotan Espainiako Gobernuak beste 26 euskal preso politikoko lekuz aldatu ditu. «Kasu gehienetan Euskal Herrira gerturatu baino gehiago, urrutiratu egin dituzte, Andaluzia, Valentzia, Murtzia eta Galiziako espetxetara», adierazi du Etxerat-ek. «Lekualdatze hauek oso argi uzten dute agerian PSOEko Gobernuak duen jarrerara eta intentzioa, espetxe politikoa horretan sakontzea euskal presoak txantaita politikoko moduan erabiltzeko», gaineratu du.

Preso eta gertuko artean, «dispertsio politika» martxan jarri zenetik, 38 pertsona hil direla salatu dute preso eta iheslariaren senideek, horietako 10 azken hiru urtetan.

Espainiako Gobernuak, gainera, «erabateko kolaborazioa eta laguntza du Lakua kudeatzen duten alderdi politikoen aldetik, politika anker eta kriminal honekin amaitzeko eta presoak bere eskubide guztiak eduki dezaten euskal herritaruak izateko ez bai dute ezertxo ere egin».

Agintariei buruz ere mintzatu da Etxerat. «Gaur egun, ez daukate inongo borondatearik, bortizkeria eta Estatu krimen eta erailketa hauekin amaitzeko; lehen aipaturiko alderdien utzikeria eta babesarekin, Espainiako eta Frantziako estatuek mantentzen duten espetxe politika horrek, hilketak eragiten, sufririkarioa areagotzen eta gatazka luzatzen jarraitzen du, soluziobideari ateak irekitzen baino».

Argudio hauek guztiak direla eta, «beste behin ere», eragile sozial eta sindikalei, zein gizarte osoari, presoek eskubideen alde lan egiten jarraitzea deia luzatu nahi izan du Etxerat-ek.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserrira - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

ARAMBURU

Salgai (Tolosa). Pisua San Frantzisko, 17. 140 m2. Garajea aukeratu.

Salgai (Tolosa). Pisua Larramendi kalean. 112m2. Salgai (Berrota). Pisua, baratza eta txabola. 168.000€ Salgai (Tolosa). Lokalak. Amarotz auzoan, Kale Nagusian eta Belate ibiltoikian. Salgai (Ibarra). Lokala 60m2. Salgai (Tolosa). Garajeak Plaza Zaharrean, Pedro de Tolosa eta Leidorren. Alokatzeko (Añoeta). Pisua guztiz prestatua. Alokatzeko (Tolosa). Lokal girotua, Foru kalepean. Alokatzeko (Tolosa). Bi lokal komertzial ondoan, Laskorain kalean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Su-etena denontzat, noizko?

1. Poza. Poza handia sentitu dut ETak su-eten iraunkorra eman duenean. Askok poztzen nau batzuek sufrizteari utzi diotelako, bizkartzainekin zebiltzanak (dabiltzanak) esaterako, oraindik batzuk zergatik dabiltzan ulertzen ez badut ere.

2. Martxoaren 10ean joan zen gure ama bere ahizpa batekin Puerto de Santa Mariara (1.200 km.). Nik berrogeitaka urte izanda pentsatu besterik ez duzue adinez aurrera doa zela gure bisitariak —esan be-

harririk ez dago hauekin batera ehunka izaten direla asteburuero bidaia luzeak egin behar izaten dituzten euskal preso politikoen senide eta lagunak, eta urteak daramatzatela bidaia gogor horiek egiten—. Bi gau eserita autobusean eta diru mordoska gastatu behar bidaian.

3. Okerrik ezean, apirilaren 7an aterako naiz Puerto de Santa Mariara, adinez nire aita izan daitekeen batekin, gure senidea bisitatzeko.

4. Noizko tregua, horrela ibili behar dugun guztiontzat?

5. Maiatzean beteko dira hiru urte udal hauteskundeak izan genituenetik. Harrezkero, 2.500 boto jaso zituen Tolosa Bizirik-

eko 5 hautetsi kale gorrian daude, zinegotzi lanetan aritu beharrean.

6. Noizko Antton Izagirre, Begoña Aldalur, Aitor Iztueta, Hektor Espin eta Iban Ortiz zinegotzi?

7. Noiz errespetatuko du Udalak tolosarron botoen emaitza?

8. Bidegabekeriak hiru urte egingo ditu maiatzean. Legeagintaldi honetako azken urtean ezarriko ote du Udalak demokratia Tolosan? Aukera polita litzateke aurtengo sanjoan demokratian ospatze-ko.

9. ETaren su-etena Europako herri zaharretako baten eskubideak berreskuratzearan

hasiera da, ez ezeren amaiera, Euskal Herrira demokratia ekartzeko lehendabiziko pausoa baizik. Kanpoko eraginik gabe euskal herritarrok erabakitze eskubidea lortzeko estreina urratsa, erregalatu ez diguten eskubidea, lortu egin beharko duguna, nahiz eta eskubide hori eskubide unibertsala izan, edozein herririk duena.

10. Zer egin dezakegu herritarrok?

11. Bat-batean bi ekimen dartzat gogora: euskal preso politikoa Euskal Herriratzeko lanetan inplikatu, adibidez, eta hilaren azkeneko ostiralean Trianguloan izaten den elkarretaratzean parte hartu.

12. Datorren asteburuan, hau da, apirilaren 1ean Bilbon egingo den manifestazioan parte hartu, konponbide demokratikoaren beharra lau haizetara zabaltzeko, Euskal Herriak erabakitze eskubidea duela aldarrikatzeko. Espainiako estatuan eroso antzean bizi nahi duten, eta horretarako hiru probintzietako estatutu berriko bat nahi duten Josu Jon Imaztarrek egin dezatela nahi dutena, Euskal Herria aske ikusi eta amesten dugunok: Bilbora apirilaren 1ean, erraldoia egin behar dugun olatu berri baten sorreran parte hartzera.

IÑAKI AZALDEGI
ARRIETA ▶ TOLOSA

KULTURA ▶

Gazteak musikara hurbilduz

Elkarlanerako akordioa sinatu dute Tolosako Orfeoia eta Deustuko Unibertsitateko ESME Junior enpresak

ESTI EZEIZA

Tolosako Orfeoia barruan, gazteak osatutako abesbatza bat eratzeko akordioa sinatu zuten, herenegun, Deustuko Unibertsitateko ESME Junior enpresak eta Tolosako Orfeoia. Hitzarmena Tolosako Kasinoan gauzatu zen. Mikel Telleria Tolosako Orfeoiko lehendakariak eta Begoña Ayerdi ESMEko lehendakariordeak sinatu zuten, Ignacio Ruiz de Alegria Tolosako Orfeoiko zuzendariaren laguntzaz.

Proiektuak hiru fase ditu: orain lehenengoan daude, eta Tolosaldeko gazteen iritziak biltzen ari dira, ondoren aztertu eta ondorioak ateratzeko. Bigarren pausoa abeslariak erakartzea izango da. Eta, azkenik, Tolosako Orfeoiko Gazteen Abesbatzarako kantariak aurkitzen saiatuko dira.

Itunaren bitartez, antolatzaileek «gazteak musikara erakarr» nahi dituzte. Proiektu berriarekin honekin Tolosako Or-

feoioek uste dute ahots gehiago hurbilduko direla kantura; izan ere, egun, oso zaila da abeslari gazteak bilatzea, eta gehiago mutilen artean. Orokorrean, abesbatzek krisi garai bat bizi dute, jende gaztearen jarraipena ez baita ematen. Arazo hau dela eta, ESMEkoen-gana jo dute tolosarrek, eta tratu batetara iritsi dira.

Berrikuntzen artean musika mota ezberdinen konbinaketa eta teknologia berrien erabilera egongo lirateke. Ignacio Ruiz de Alegriaren esanetan, «abeslariak hiru astetik behin edo joan beharko lukete entseguetara etabitarrean, MP3an musika gordeta, etxean ere abestu ahal izango lukete». Horrela, abesbatzen irudi «karka» horrekin amaitu nahi dute. Tolosako Orfeoiko ordezkariaren ustetan, «oraindik proiektu edo asmo bat besterik ez da, baina ongi ateraz gero interes eta zer esan handia piztuko luke gainontzeko abesbatzetan».



Ezker-eskuin: Ignacio Ruiz de Alegria, Mikel Telleria eta Begoña Ayerdi. ESTI EZEIZA

iragarki laburrak ▶
LANPOSTUAK

Suhiltzaileak. Ertzaintza, polizia. 2006ean lanpostu berriak. Informazioa: 943 313782.
Administrari laguntzaileak. Hurrengo sarrerak: Beasain, Bergara, Soralue, Mutriku, Zizurkil,

Mendaro, Anoeta. Hilean 1.500 euro. Doako informazioa. 943 313782.
Garbitzaileak. Lanpostu finkoak: Eusko Jaurilaritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informazioa: 943 313782.

Gidariak. Udaletan eta Foru Aldundian laster lanpostuak. Kontratu mugagabeak. 943 313782.
Sukaldariak eta sukaldari laguntzaileak. Postu libreak Eusko Jaurilaritzan. Asteburuetan libre.

943 313782.
Peoia, langileak. Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak, gidariak. Lanpostu libreak udaletan. 943 313782.
Aireportuak. Bete behar dituzte:

harreragileak, aireko kontrolatzaileak, suhiltzaileak eta mantentze-lanerako langileak. Informazioa: 943 313782.
Harreragileak. Telefonistak, hurrengo deialdiak erakunde publikoetan. 943 313782.

VILLABONA ▶ POLITIKA

Salaberria espetxeratu
zutela lau urte bete dira

Manifestazioa antolatu du Askatasunak gaurkorako, 18:30ean, plazatik abiatuta

ERREDAKZIOA

Lau urte beteko dira gaur Emilio Salaberria euskal preso politikoko billabonatarra atxilotu zutela. Villabonako Askatasunak manifestaziora deitu du gaur, 18:30ean, herriko plazatik abiatuta, preso baten espetxeratzearen urteurrenean egin ohi duenez. Salaberria «Euskal Herrira, etxera etortzea» aldarrikatuko du.

«Dispersio politikaren aurkako manifestazioa izango da, espetxe politika antzu eta kriminalaren aurkako salaketa, presoak eta euren senitatekoak zigortzen dituen politika», adierazi dute antolatzaileek. «Euskal gizarteari orohar eta billabonatarrei bereziki dei egiten diegu eus-

kal preso eta iheslarien eskubideen alde deitzen diren ekitaldi eta deialdietan parte hartze zuzena izateko, hau baita herri honek abiatu behar duen prozesua bermatzeko modurik egokiena».

ETAren su-etenaren ondoren presoen senideen egoera ez dela aldatu gogorarazi dute: «Asteburuan hainbat eta hainbat familia errepideetara aterako dira, 40 minutuz bederen euren senideak ikusi ahal izateko. Politikariak honetaz ahaztu egiten direla dirudi, eta Amnistiaren Aldeko Mugimenduak etengabe esango du euskal preso eta iheslarien presentzia bermatzen ez duen prozesua ez dela inoiz prozesu zilegia izango, ez eta politikoa ere».

ASTEASU ▶ KULTURA

Herrian zehar kantuan
aritzeko aukera, gaur

ERREDAKZIOA

«Nahi duenarentzat irekia». Horrela definitu dute antolatzaileek gaur Asteasun egingo duten kantujira. 12:00etan elkartuko dira Kultur Etxearen ondoan. Asteasuarrak ez ezik, inguruko herrietakoak eta Donostiakoak ere izango dira.

Antolatzaileek ekintzaren «originaltasuna» azpimarratu dute: «Ez da egun berezirik horretarako, gauza espontaneoa da, eta herri ezberdinetako jendea elkartzeko aukera bat herri kantuen inguruan». Parte-hartzea errazteko, kantu paper batzuk prestatu dituzte.

ZIZURKIL ▶ HEZKUNTZA

Euskararen Asteak
emandakoarekin
«oso gustura»

Pedro Mari Otaño eskolan atzo eman zieten amaiera ekitaldiei, ikasle, guraso eta irakasleen arteko jolasekin

IMANOL GARCIA

Pedro Mari Otaño ikasle, guraso eta irakasleek atzo eman zieten amaiera lehenengo Euskara Aste «zoragarriari». Gustura zeuden benetan ekitaldiz betetako asteak eman duenarekin. «Ikasleak oso gustura aritu dira. Asko gozatu dute eta oso positiboa izan da», azaldu dio HITZARI Mirari Aiestaran irakasle eta antolakuntza lanetan aritu denak.

Jokoak eginez bukatu zuten atzo astea. Guraso, haur eta irakasleek hartu zuten parte giro ederrean eskolako frontoian antolatutako jolasetan. «Gurasoek gozoz hartu dute parte ekitaldietan», nabarmendu du Aiestaranek. Astean zehar izandako gonbidatuekin ere «oso gustura» zeuden eskolakoak.



Guraso, ikasle eta irakasleak, atzo, jolasean. I. GARCIA

Datorren ikasturterako ere Euskararen Astea antolatzeko asmotan dabilta, aurtengoaren esperientzia ona ikusita.

Baina lehenago egingo dute, abenduaren 3an izaten den Euskararen Egunarekin bat eginez.

AMASA-VILLABONA ▶ MENDIA

500 mendizale ariko dira bi ibilaldietan
Aizkardikoen kalkuluen arabera

I. GARCIA

Buru-belarri dabilta Aizkardi elkarteak biharko ibilaldia antolatzen. Dagoeneko 325 lagunek eman dute izena bi martxetan parte hartzeko, eta horietatik 60 inguru ibilaldi motzean ariko dira. Zenbakiok pasa den asteartean bildu zi-

tuzten, horregatik antolatzaileek espero dute 500 mendizale inguru bilduko direla bi ibilaldietan.

Izena emandakoak eskualdekoak ez ezik, Gipuzkoa oso-koak, Bizkaikoak eta Arabakoak dira. Izen-ematea, baina, oraindik irekita dago eta bihar bertan eman daiteke, probaren

irteera baino lehen. Gogoratu ibilbide luzea egin behar dutenek —42 kilometrokoa— goizeko zazpitan abiatu behar dutela, eta ibilbide motza egingo dutenek —23 kilometrokoa— goizeko zortzietan. Guztiek irteera Aizkardi elkarteak lokalaren ondotik egingo dute, hau da, Zentrotik.

TOLARE-SAGAROTEGIA
SARASOLA
Larunbata eta igandetan eguerdian irekita

Jatorrizko Sagardoa
Sagardotegia - ASTEASU
Tel.: 943 69 02 83
Zumalikardi Baserria - ANOETA
Tel.: 943 65 26 22

LEHENENGOAK BIKELASALMENTA

DIESELAREN SUKARRA CITRÖENEN

HOTI TEKNOLOGIA BARRIENA ESKAITZA EZIN HOBETIKIN

CITROËN C1	CITROËN C2	CITROËN C3	CITROËN C4	PEUGEOT PICASSO
2.500	2.500	2.500	3.000	4.550
12.900	12.900	12.900	11.830	13.000

IRABAZI EGONKORAK HILABETE BUKAERARTE

IROVI, S.A. Citroën Konzesionario Ofiziala - Industriakoa z/g. Tel.: 943 65 18 42. Anoeta / Tolosa

CITROËN

ALTZO ▶ ZUHAITZAREN EGUNA

Bi haritz gazte Gerizako askaldegian

Urtero bezala, Gerizan landatu zituzten, asteazken arratsaldean

NEREA URBIZU

Altzoko herrian, joan den asteazkenean, Zuhaitzaren Eguna egin zuten, arratsalde partean. Landaketa Geriza askaldegian egin zuten.

Altzoko eskolako ikasle guztiak, irakasleak eta baita guraso gehienak ere bertara igo ziren, zuhaitzak nola landatzen zituzten ikustera.

Gerizara oinez joan ziren landaketa egitera. Landatutako bi zuhaitzak haritzak izan ziren. Horretarako, alguazilaren laguntza ere jaso zuten.

Txikienek ere lan egin zuten, pala hartuta zuloan sartutako zuhaitz gazteari lurra botaz.

Hurrengo urteari begira, beste zuhaitz batzuk landatzea

ere espero dute, urteetan zehar egin ohi duten bezala.

Landaketa amaitzeko hantxe ibili ziren haurrak, jolasean eta hurrengo urteko Zuhaitzaren Eguna berdin edo hobeto igarotzeko asmotan.

Landaketa amaitu ondoren, bertaratutako guztientzat merienda izan zen Segoretxean, herriko taberna batean, alegia. Eguraldiak ere lagundu egin zuen, nahiz eta haizea petral samar ibili.

Arratsaldean egunarekin amaitzeko hantxe ibili ziren haurrak, jolasean eta hurrengo urteko Zuhaitzaren Eguna berdin edo hobeto igarotzeko asmotan.

Nork daki, agian herriko Gaztain Motzetako pago ederraren itxura edo tamaina hartuko du haritzen baten batek...



Pala eskuan hartuta, haritzak landatu egin zituzten haurrek. HITZA

ORENDAIN ▶

Jakoba Errekondoren hitzaldia

Lorezaintza, laborantza eta nekazaritzari buruzko hitzaldia izanen da gaurkoan, 16:00etatik 18:00etara. Orendaingo Kultur batzordeak antolatutakoa da, eta Jakoba Errekondoren eskutik izango da. Nabaralde elkarteko kide dena. Udaletxeko areto nagusian eskainiko du solasaldia. Jende asko biltzea espero dute.

AMEZKETA ▶

Sagardotegira joango dira apirilaren 1ean

Amezketako Ugarte auzokoen, duela hiru urtez geroztik egiten duen moduan, sagardotegira joateko bazkaria eta autobusa antolatu dute. Apirilaren 1ean izango da, eta Ugarteko plazatik 12:45ean abiatuko da autobusa. Horretarako txartela erostea beharrezkoa izango da Goikoetxeneko tabernan, 30 euroren truke. Astigarragako Petritegi sagardotegira joan nahi izanez gero, lehenbailehen txartela erostea eskatu dute, bazkaltiarren kopurua jakiteko eta autobusa denborarekin antolatzeko.

BIDEGOIAN ▶

Kiroldegiko teilatuko obrak luzatu egongo dira

Ikaztegiako kiroldegiko teilatua berritzen hasi ziren urtarilean. Horregatik hainbat zerbitzu ezin izan dira bertan jaso: obrak luzatu egin dira, eta oraingoz hilaren 27an etenda zeuden zerbitzuek etenik jarraituko dute. Udalak berriro abisatu arte; baina posible da bi aste gehiago zerbitzurik ez egotea.

MUSIKA ▶

Eskualdekoen parte-hartze handia, Gipuzkoako Kantu Txapelketako bigarren kanporaketan

26 kantu ezberdin entzungo dira gaur arratsaldean, Oiartzungo Elorsoro kiroldegian

N. URBIZU

Dagoeneko Euskal Kantu Txapelketako bigarren kanporaketa jokatu da Oiartzunen, gaur arratsaldean. Hauek dira bertan parte hartuko duten eskualdeko abeslariak: Alaitz Ormazabal (Zizurkil), Maialen Etxeberria eta Oroitz Unsain

(Berastegi eta Tolosa), Gari-koitx Lobregat (Altzo), Alaitz Ormazabal eta Lierni Aburuza (Zizurkil), Naroa Geresta (Asteasu), Piperminak taldea (Villabona), Izaro Saizar (Berastegi) eta Zugarramurdi taldea (Amasa, Andoain eta Oiartzungo jendea nahasirik). Urtero bezala, gehiengoa bi-

kote eta banaka moduan ateratzen dira kantuan, askotan taldean biltzearen zailtasunak direla eta, errazago da.

Orokorrean entzun ahal izango diren kantuak tradizionalak izango dira: Benito Lertxundi, Tapia eta Leturia, Pantxo eta Peio, Txomin Artola, edota Xabier Lete.

Kantarien artean ere bada sortzaileen bat edo beste: kanta berriak entzun ahal izango dira, hortaz, haien sortzaileez gain.

Orotara, 20 talde, bikote eta bakarlarari ariko dira, eta 26 kantu entzun ahal izango dira, batzuek bi kanta eskainiko baitituzte.



Udaltalde 21 Ernioaldeak Parte hartze prozesuarekin jarraituz Herri Batzarrak ospatuko ditu diagnostikoko ondorioak eta helburuak aztertzeko. Horretarako zuen iritzia funtsezkoa da. Zuen partehartzea garrantzitsua da!

Zizurkil: martxoak 28, 19:30tan atxulondon
Anoeta apirilak 3, 19:30tan Udaletxean
Asteasu: apirilak 5, 19:30tan Udaletxean
Aduna: apirilak 5, 20:00tan Kultur aretoan
Iruira: apirilak 6, 19:15tan ikastolan
Hernialde: apirilak 10, 20:00 Soziedadean
Villabona: apirilak 11, 19:30tan Udaletxean

PARTAIDEAK:



IBARRA ▶ POLITIKA

Urtemugan, presoak gogoan

Herriko preso politikoen urteurrenean hainbat ekitaldi antolatu ditu Ibarrara Herri Ekimenak: hitzaldia, ikus-entzunezkoa, omenaldia eta kantu afaria

IÑIGO TERRADILLOS

Gaur 4 urte beteko dira Eider Ijurko eta Ekaitz Aramendi ibartar preso politikoen atxilotu zituztenetik. Egun, Curtis-eko (Espainia) espetxean aurkitzen dira biak Euskal Herritik 900 kilometrotara. Soto del Real (Madrid), Avila eta Daroca (Zaragoza) eta Valdemoro (Madrid) espetxeetan ere izan dira. Torturak eta 10 eguneko inkomunikazioa jasan zituztela salatu dute. Maite Aranalde ibartarren kasuan, pasa den asteburuan bete zen urtebete atxilotu zutela, eta hiru urteurrenak aintzat hartuta, euren egoera salatu, eta gogorarazi asmoz, Ibarrara Herri Ekime-



Ezker-eskuin: Maite Aranalde, Eider Ijurko, Ekaitz Aramendi eta Jon Mindegiaga. HITZA

nak hainbat ekitaldi antolatu ditu. Halaber, Jon Mindegiaga ibartarra ere izango dute gogoa; 2002ko urriaren 1ean atxilotu zuten eta ia 4 urte daramatza epaiketaren zain, 3 aldiz atzeratu ondoren.

Hala, asteazkenean, kartzelako bizi baldintzez jardungo

du Begoña Uzkudunek, eta ETaren su-etenaren ondotik egingo diren lanez, berriz, Argitxu Martinez eta Irati Aranzabal Etxerat-eko ordezkariak. Ostegunean, berriz, Turkiako preso politikoei buruzko ikus-entzunezkoa ikusteko aukera izango da.

Ostiralean, hileko azkena izaki, konzentrazioa egingo dute herriko sarreran, eta ondoren omenaldia egingo diete herriko preso politikoei. Kantu afaria izango da gero, Sendi Ekin-tzan. Bertara joateko 699 93 67 73 telefono zenbakian eman beharko da izena.

EGITARAUA ▶

ASTEAZKENA, HILAK 29

19:30. Argitxu Martinez eta Irati Aranzabal Gipuzkoako Etxerat-eko ordezkariak, eta Begoña Uzkudun 18 urtez kartzelan egon den errezildarrarekin hitzaldia, Kultur Etxean.

OSTEGUNA, HILAK 30

19:30. Preso politiko turkiarrek egindako gose grebaren borrokaldiaren, jasandako torturen eta hil zituzten presoengaineko berriak jasotzen dituen bideo emanaldia, Kultur Etxean.

OSTIRALA, HILAK 31

19:30. Azken ostiraleko konzentrazioa Ibarrako sarreran.

Ondoren. Herriko preso politikoen urteurrena dela eta, omenalditxoak.

21:00. Kantu afaria Sendi Ekin-tzan.

BELAUNTZA ▶ POLITIKA

'Euskal presoak EHra' kendu izana salatu dute

Ikurra «udalbatzetan eztabaidatu gabe» balio gabetu dutela adierazi du Sustraiak-ek

ERREDAKZIOA

Belauntzako Sustraiak Herri Plataformak herriko alkate-tzak Udaleko idazki guztietatik *Euskal Presoak Euskal Herrira* ikurra kendu duela salatu du. Plataformaren esanetan, «udalbatzak bere garaian hartutako erabakia inongo udalbatzetan tratatu gabe eta inorekin kontsultatu gabe balio gabetu da». «Lehen, udaletxeko balkoitik banderola desagerrarazi zuten, eta orain, berriz, neurri honekin beste urrats bat eman

dute presoengaineko eskubide eta bizi baldintzen kontra», adierazi dute.

Halaber, Ibarra ikastolak eta haurtzaindegiak bailarako haurtzaindegiak doan jarririk autobus zerbitzuaren gastuetarako Udalarri eskatu zaion diru laguntzari uko egin izana ere salatu du Sustraiak plataformak. «Ulertezina egiten zaigu Leaburu-Txarama bezalako Udal batek, berez 'existitzen ez dena', dirua izatea horretarako, eta Belauntza bezalakoak ez izatea», adierazi dute plataformako kideek.

IBARRA ▶ GIMNASTIKA ERRITMIKOA



Belabietak, emaitza bikainak

Erredakzioa ▶ Pasa den larunbatean jokaturako Gimnastika Erritmikoko A mailako Txapelketaren bigarren zatian emaitza onak lortu zituzten Belabietak taldekoek. Uztaiarekin, infantil mailan, Garazi Egigurenek lehenengo postua lortu zuen, eta Izaro Esnaola laugarren sailkatu zen. Bestalde, B mailako apirilaren 2an izango dute bigarren jardunaldia; kasu honetan, Belabietako Maider Urruzola, Onintza Odriozola eta Maider Zabala ariko dira. HITZA

GIZARTEA ▶

Udako auzolandegian izena emateko aukera

ERREDAKZIOA

Eusko Jaurlaritzako Gazteria Sailak Auzolandegiak programan izena emateko epea zabaldu berri du. Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatutako 15 eta 30 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute bertan. Udako auzolandegien eskaintza zabalda da oso, eta gazteek Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan zein atzerrian antolatu diren hainbat auzolandegietan parte hartzeko aukera izango dute.

Informazio gehiago eskuratu, edota izena eman nahi duten gazteek www.gazteak.euskadi.net webgunean sartuz egin dezakete.

BANAKETA ENPRESA batek, banatzaileak behar ditu, Donostialdean eta Tolosaldean.

» LAN BALDINTZAK:

- Astean sei egun. Asteartetik igandera.
- Bi aste lan, bat jai.
- Egunean 4 ordu.
- Goizeko 04:00etatik 08:00etara.

Ezinbestekoa da autoa izatea

Astelehena, martxoaren 27an, deitu telefono honetara 943 304 341

iragarki laburrak ▶

LANA

Ileapaintzailea. Ileapaindegirako langilea behar dugu, lanaldi erdirako. Bidali curriculum-a eta argazkia Tolosako lurte auzoa 20, 3. B helbidera.

Zaintzailea. Goizez eta arratsaldez, haur bat zaintzeko emakume euskalduna behar da. Interesatuak

deitu 626 86 89 14 telefono zenbakira.

SALGAI

Behorra. Gainean ibiltzeko hamar urteko behorra salgai, beharrezko guztiarekin. 609 44 25 09.

Autoa. Golf GT TDI 110 CV, SS-AK salgai. 651 70 82 91.

▶ **TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

Eztabaida. ETaren su-eten iraunkorra dela-eta bake prozesua gertuago ikusten al duzu? Erantzun egokia emango al du Espainiako Gobernuak? Zer aldatuko da? Eman zure iritzia gure webgunean! ▶

AISIA ▶

Udalekuetara joateko izena emateko tenorea

Udalekuetara joan nahi duten Aresoko eta Leitzako umeentzat aurre-iskripzio epea ireki du Euskara Zerbitzuak. Heldu den astelehena, astearte eta asteazkenena dituzte izena emateko egunak, interesa duten gaztetxoek, zerbitzu horren bulegoan. Hori bai, izena taldeka eman behar omen da, «hauek gehienez lau lagunekoak» izanik. Bertan zehaztasun gehiago ere eskuragarri izanen omen dute. Edozein moduz, zarpina eguneko egonaldiakin, hiru eskaintza jarri ditu aukeran, adinaren ariorakoak: Alkizan bata, 4. eta 6. maila bitarteko ikasleentzat; besteak Pasai Donibanen, 1.-3. mailak alde batek, eta 6. eta DBHko 1. eta 2. mailakoentzat bestetik. «Gehienez hiru txandatan» eman daiteke izena. Egonaldiko matrikula-tasa, 111,5 eurokoa omen da. Udalekuak ekainaren 28tik aurrera dituzte egitekoak.

LEITZA ▶

Aurrerako talde gazteak gaur 12:00etan du zita

Ez ohiko ordutegian jokatzen du partidua Aurrerako jubeniletako taldeak: gaur bertan, eguerdi-eguerdian. Hala, 12:00etan zela iratutako dira Arkixkilen, eta pareko taldea izanen du aurrez aurre, gainera: Larraona-Claret talde iruindarraren bisita izanen baitu. Saiklaren koardroan erreparatuta, hura 18 punturekin, 10. lekuan dago, leitzarrek baino partidu bat bakarra gehiago irabazita. Aurrera gaztea 11. dago. Aitatzekoa da, ordea, joanera-koan 0 eta 2ko emaitza eginda. Leitzaldera ekarri zituztela garaipenaren 3 puntuak. Aurreratzeko biderik bada.

LEITZA ▶ HERRI KIROLAK

Inaxio Perurena esku bakarrarekin beste marka egitera doa

Rekondok eta Otañok, berriz, Banakako Urrezko Aizkolarian kanporaketak dituzte, Etxebeste eta Txapartegiren aurka

ERREDAKZIOA

Inaxio Perurenak beste marka ahalegina eginen du gaur bertan Leioan: 225 kiloko harri zilandrikoa esku bakarrarekin jasotzen ahaleginduko da.

Leitzarrak duela bi hilabete jaso zuen 220 kiloko. Orain 5 kilo gehiago erantsita, marka hobetzeri doa, hain justu ere 23 urtez behokoetan marka onena ezartzeri. Aurreko egunetan, asteazkenean, azken probak egin eta gaur eginen du baliozko altxaldia Sakoneta kiroldegira bertaratu diren zaletuen aurrean.



Perurena marka bila. ARGAKZI PRESS

Jaialdi berean, Urrezko Aizkolarien Lehiaketako hiru kanporaketa jokatu dituzte. Bai-

na ez da hori txapelketa horretan gaur jokatu den kanporaketa bakarra.

Asteasun Otaño eta Rekondo

Hain zuzen ere, gure eskualdeko bi aizkolarik parte hartuko baitute bigarren horretan. Asteasuko pilotalekuan, gaur gauean, 23:00etatik aurrera hantxe izanen dira Rekondo leitzarria eta Otaño ibartarra, bakoitzak kanporaketa bana jokatzera joanak.

Hurrenez hurren, Etxebeste eta Txapartegi izanen dituzte arerio.

LEITZA ▶ POLITIKA

Aizpuru presoaren epaiaren zain berriz ere

Segi-ko kasuagatik espetxeratutakoen auzia epailearen aurrean da

ERREDAKZIOA

Eneko Aizpuru euskal preso politikoa leitzarria aske uzteko eskaria egin du berriz ere bere defentsa abokatuak, Segi-ko auziagatik espetxeratutako gaienerako lagunekin batera.

Atzo epaitegian gaia landu zuten helegite bat zela medio eta han fiskalak 60.000 euroko bermea ordaindutakoan aske uzteko eskaria eginda, iluntzean oraindik epaiaren zain zeuden Aizpuru bera eta bere senideak ere. Harekin batera,

Segi-oren aurkako auziagatik oraindik ere espetxean dirauten gainerako lagunak ere egoera beretsuan leudeke; hain zuzen ere, Oier Oa, Garikoitz Mujika eta Araitx Zubimendi dira horiek.

Atzo arratsaldean zehar informazio nahasiak hedatu ziren komunikabide desberdinetan eta baita Askatasunak berak igorritako prentsa oharrean ere. Izan ere, erakunde antierrepresiboak berak jada, lehen aitatutako berme hori ordaindutakoan «astelehene-

tik aurrera aske utziko» dituztela baieztatu zuen.

Aizpuru iazko uztailaren 5ean hartu zuten atxilo, ustez Baionan, lan egiten zuen lekuan. Bi egun egin zituzten beren senideek haren berririk izan gabe, eta Askatasunak berak «desagertutzat» jo zuen Aizpuru.

Bi egun horien burura, Grande-Marlaska epailearen aurretik pasatu eta hark espetxeratzeko agindua eman zuen. Ipar Euskal Herriatik Espainiaratuta gero.

LEITZA ▶

Herriko umeek aisialdi gunea izanen dute aurrerantzean

Heldu den asteartean irekiko dute ludoteka udaletxeko aurreko solairuko aretoan

J. ASTIBIA

Asteartetik aurrera, eta ikasurtea bukatu arte, Leitzako umeek aisialdirako beste aukera bat izanen dute: ludoteka irekiko dute, udaletxeko aurreko solairuko aretoan.

Euskara Zerbitzuaren eta Udalaren eskutik, Dindaia Fundazioak kudeatuko du aitatutako aisialdi gunea hau, «eskolaz kanpoko jardueretan, aisialdian, umeen hezitza osagarrian aditu diren taldea». Arduradunek jakitera eman dutenez, bertako langile Ainhoa Antzizar leitzarria izanen da ludotekaria, alegia, bertan matrikulatu diren 16 umeekin lanean ariko dena.

Gune hau 12 urte bitarteko umeentzat bideratuta izanik ere, «Haur Hezkuntzan ikasten ari direnak dira matrikulatu diren ia denak», hamabi ume, 3-6 urte bitartekoak, alegia; 7-12 bitarteko bik parte hartuko dute.

Astean bitan

Hala, zehaztu dutenez, «talde bakarra osatu da eta astean bitan eskainiko dugu zerbitzua». Asteartetan eta ostiraletan elkartuko dira, 17:00etatik 19:00etara.

Ludotekan «euren garapenerako baliagarri eta lagungarri diren jolas aiproposekin» hornitutako txokoak berezi dituzte: ipuinen txokoa, eskulanena, jokoena, etxerena... Bakoitzean modu bateko jarduerak eginen dituztelarik, azaldu dutenez.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK Telf.: 943 65 56 95
19:00ak arte hartzen dira tolosaldean@tolosaldeko hitza.nfo

hilberria ▶

Maria Jesus Goikoetxea

ATZO hil zen, Beasainen, 62 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golan bego—

Alaitasunaren ispilu izan zara guztiontzako. Zure ondoan sentitutako maitasuna inoiz ez dugu ahaztuko, orain ez zaude gurekin baina gogoan izango zaitugu betiko.

Senarra eta familia guztiaren partetik

oharra ▶ Hileta elizkizuna gaur arratsaldeko 18:30ean izango da Beasaingo San Martin parrokiaren.

BEASAIN, 2006ko martxoaren 25a





AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Jubilatuen irteera antolatuta dute Lizarrara apirilaren 6rako, Aldaiondo sagardotegian bazkalduz eta Iruñea bisitatuz. Izen-ematea, jubilatuen elkartean.

Anoeta. Eskualdeko Gazte Olinpiadak. 16:00etan, plazan. Irabazlea biharko Gipuzkoako finalera joango da. Ondoren, triki-poteoa, afora Gaztetxean eta kontzertua Naizroxa eta Neu taldeekin.

Anoeta. Zuhaitz Eguna. 16:30ean, Ibaigain pasealekuan. Ondoren, merienda izango da herriko plazan. Deialdi berezia egin diete umeei.

Asteasu. Abesbatzaren kantujira, 12:00etatik aurrera. Ondoren, bazkari legea egiteko elkartuko dira.

Berrobi. Berrobiko eskolako ikasleek *Pausoka* aldizkaria egin behar dute. Horretarako, eskolako argazki zaharrak, eskola garaiko pasadizo interesgarri, kurioso edo zelebreak eskatzen dizkiete herritarrei. Eskolara eraman behar dira.

Larraul. Ur hornidurari eta museoari buruzko herri bazarra. 16:00etan, Katillubulo elkartean.

Leitzaldea. Benidormera irteera antolatuta du Arkupeak jubilatuek elkarteak, maiatzaren 10etik 24ra bitartean, 460 eurotan. Izen-ematea, elkartean.

Tolosa. Udaberri dantza taldeak erromeria egingo du apirilaren 1ean. Jaiari amaiera emateko afora antolatuta dute, Abastosen. Dagoeneko Kimetz arropa dendan eta Garikano zapata dendan daude salgai txartelak.

Tolosa. Laskorain Ikastolan 2004-05 ikasturtean DBH bukatu zuten ikasleek titulua jaso dezakete ikastolako idazkaritzan, Usabalen.

Tolosa. Kultur Astea Hirukide ikastetxean. Gaur, azken egunean, irratsaio bereziak emitituko dituzte.

Villabona. Aizkardiren XXXVII. mendi marxa, bihar. Bi ibilbide izango dira: 42 kilometrotakoa (9 ordu eta erdi inguru) eta 23 kilometrotakoa (5 ordu eta erdi inguru). Izen-ematea, 649 71 71 82 telefono zenbakian, 19:00etatik 22:00etara, edo marbxaren egunean bertan, irteeran.

ERAKUSKETAK

Alegia. Jesus Lopez Zulueteren margolanak. Apirilaren 21a arte, Jubilatuen tabernan.

Leitza. *Manuel Lasarte: bizitza eta sorkuntza.* Bihar arte egongo da ikusgai, udaletxean.

Tolosa. Dorleta Ortiz de Elgearen pintura erakusketa. Apirilaren 1a arte, Aranburu Jauregian.

Tolosa. *Ni ere pertsona* erakusketa. Aste osoan,



Mugitzen ari den poesia

TOLOSA ▶ Horixe da Enrique Zaldia artistak Tolosan jarri duen erakusketarekin islatu nahi izan duena: mugitzen ari den poesia. Hain zuzen ere, *Poesia movil* du izenburu lanen bildumak, eta koadro koloretsuz beterikoa da. Zalduaren lanak Aranburu Jauregiko hormetan daude zintzilik, eta apirilaren 22ra arte izango dira ikusgai bertan. Asteartetik larunbatera dago zabalik erakusketa, arratsaldez. HITZA.

Kultur Etxean. Arrazakeriaren Aurkako Astearen barruan, Gipuzkoako SOS Arrazakeriak antolatuta.

Tolosa. Maite Itxasoren olio-pinturak eta akuarela lanak

ikusgai daude Lanbroa tabernan.

HITZALDIAK

Orendain. Lorezaintza,

laborantza eta nekazaritzari buruzko solasaldia, Jakoba Errekondorekin. 16:00etan, udaletxeko areto nagusian.

MUSIKA

Ibarra. Gatillazo, Evaristoren taldearen kontzertua. 23:00etan, Gaztetxean. Aurretik afora antolatuta dute sagardotegian.

Tolosa. Tusuri eta Valvula antiretorno taldeen kontzertua. 22:30ean, Bonberenean.

Villabona. Biok eta Asma taldeen zuzeneko emanaldia. 21:30ean, Gaztetxean. Jasotako dirua Nock taldeko bateriak jasandako ezbeharrari aurre egiteko bideratuko dute.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
10:30-13:00. *Hitzak* hegan magazina: elkarrizketak, *Mundurako leihoa*, kolaboratzaileak, agenda, porra, disko eskainiak...

Goiko irrattia (107.0 FM)
13:00. *Kornerra* magazina. Posta elektronikoa: kornerra@hotmail.com.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Ane Otamendi (Abaltzisketa).
Gaur 9 urte ebeko maitagarriak. Ebekeon partez.



URTE ASKOAN
Maddi. Zorionak zure urtebetetze egunean. Bost muxu handi.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...